



FESTA AUKERA HANDIA ORAINDIKERE

Abuztua igarota, Alkiza, Zizurkil, Bedaio, Elduain, Lizartza eta Tolosako Izaskun auzoko jaien txanda da orain »6-7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2008-09-03

VI.URTEA 1.498.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

XABI FERNANDEZ MARINELA

«Bigarren domina da Olinpiar Jokoetan, hori da garrantzitsuen»

IBARRA Atenasen, 2004an urrea irabazi ostean, Pekingo Olinpiar Jokoetan bigarren domina lortu du

ERRONKA BERRIA Urriaren 11n abiatuko da, 20 metroko ontzian, Vovo Ocean Race proban parte hartzera 4



A. IMAZ

Gizonezko bat atxilotu dute herritar bat zauritu eta mehatxuak egiteagatik

ALEGIA 29 urteko gizonezkoak labankada bat eman zion herritar bati; ertzainek atxilotu egin zuten 5


Ertzaintza ikertzen ari da herenegungo sutea nahita eragin zuten

LIZARTZA Elbarrena kaleko etxe batean piztu zen sua goizaldean; ez zen zauritu larririk izan 5

argazki lehiaketa



bidali opor hauetako argazkiak!



Sari nagusia



Amorotoko Altuena landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia.

2. saria



Tolosako Beti Alai jatetxean, bi pertsonentzako bazkari edo afaria.

3. saria



Ibarrako Azoka dendak eskainitako saski berezia.

**ARGAZKIAK
NORA BIDALI**

• P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
• Postaz: Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte hartzaile eta boto emaleen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!

HITZA aste santuko argazki lehiaketa

OINARRIAK: www.tolosaldekohitza.info webgunean



Xabi Fernandez ibartarrak eta Iker Martinez hondarribitarrak omenaldia jaso zuten Ibarroko festetan; Ikaztegiatan ere Leire Olaberriari egin zioten gorazarre abuztuaren 23an. HITZA

TXAPELDUNAK NONAHI

Abuztuko kronika » Zorigaitzoko hainbat gertaera izan da azken hilabeteen; berri onak, hala ere, ugariagoak izan dira, batez ere kirolean.

R. CALVO - I. GARCIA

Azken hilabeteko gertaeren errepaso Villabonan izan zen eraso sexista batekin hasten bada ere kirol munduak berri onak ekarri dizkio eskualdeari. Albisterik onenak Txinatik iritsi zaizkigu; Xabier Fernandez ibartarrak zilarrezko domina lortu du belan eta Leire Olaberriak, aldiz, brontzezkoa eraman du Ikaztegiatar. Herrikiroletan ere, trontzan, lokotx-bilketeta eta segan, zehazki, aurreneko postuetan sailkatu dira.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Pago egur lehorra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera eramaten da. 615 755 762.

LANA

■ **Zaintzailea.** Tolosan arratsaldetan bi ume zaintzeko pertsona bat behar da. 630 984 300.

Uztailak 27

■ **Sexu eraso Villabonan.** Ertzaintzak lau adingabe atxilotu zituen ustez bikote bati eraso eta emakumeari sexu gehiegikeriak egiteagatik. Erasoaren aurkako elkarretaratzea egin zuten Villabonan.

Abuztuak 4

■ **Udal Plana onartua Leitza.** ANV-EAEK aurkeztutako udal plana onartua izan zen, alderdi horretako 6 botorekin eta UPNren bi

botorekin. EA abstenitu egin zen. Planaren arabera Landagoikoan babes ofizialeko 24 etxebizitza eraikiko dituzte eta 16 prezio tasatutakoak.

www.tolosaldekohitza.info

Abuztuak 10

■ **Arkaitz Arteaga txapelkun.** Euskal Herriko Segatxapelketa Leitza jokatu zen eta Arkaitz Arteaga baliarraindarrak irabazi zuen. Bigarrena Andoni Goikoeztea gazteluarra izan zen, hirugarrena Jesus Mari Ormaetxea Urki orendaindarra sailkatu zen, laugarrena Jon Kanflanka leitza eta bosgarren Mikel Aranalde gazteluarra.

■ **Eneko Lasa, bigarren.** Hamalau urte besterik ez ditu, baina marka oso onak egiten ditu jada alegiarrak arrantzan. Orain gutxi Portugalgo Penacova hirian burututako Euli Modalidadeko Munduko Txapelketa bigarren postua lortu zuen Junior mailan eta une honean Espainiako Arrantza Txapelketa ari da Huescako Benasque herrian. Azken txapelketa honetan 40 bat gaztek hartzen dute parte.

Abuztuak 15

■ **Lokotx-biltzea eta trontza, Baliarrainen.** Emakumezko zein gizonzkoen Euskal Herriko Lokotx-

biltze txapelketa postua onak lortu zituzten eskualdeko parte-hartzaileek. Emakumezkoetan Txaramako Josune Gorostidik bigarren postua lortu zuen eta gizonzkoetan Baliarraingo Eneko Garmendiak hirugarren egin zuen. II. Mailako Euskal Herriko Trontza Txapelketa, aldiz, Baliarraingo Jokin Garmendiak eta Ikaztegiatar Unai Iraolak hirugarren postuan amaitu zuten.

Abuztuak 16

■ **Benito Mujikaren hilketa.** Benito Mujika Jesusen Bihotza Ikastolako irakaslea bere Lasarteko etxean hilik agertu zen. Hasiera batean etxean bertan izandako sute baten ondorioz hil zela zabaldu bazen ere, gero Ertzaintzak azaldu zenez, labana baten zauriak zituen gorputzak eta beraz, erail egin zutela ondorioztatu zuen ikerketak.

Abuztuak 17

■ **Xabier Fernandezek zilarrezko domina.** Xabier Fernandez marinel ibartarrak zilarrezko domina lortu zuen Iker Martinezekin batera Olinpiar Jokoetan. Belako 49er mailan lortu zuten bigarren postua, orain laur urte Atenasko Olinpiar Jokoetan urrezko domina lortu ondoren.

Abuztuak 18

■ **Ibarroko eliza argizatuta.** Orain hiru urte hasitako Ibarroko San Bartolome elizako zaharberitze lanei pasa den hil honetan eman diete behin betiko agurra. Harriet Alustiza ingeniari teknikoak burututako lanari esker eliza argiztatuta ikus daiteke jada. Ingenieriak XVI. mendeko eraikinaren kanpaldean argi txuri «hotzak» jarri ditu eta barruan argi laranja «epelak». Argiztapenaren zenbatekoa Udalletxeak hartu du bere gain.

■ **Leire Olaberriak brontzezko domina.** Leire Olaberri txirrindulari ikaztegiatarak brontzezko domina lortu zuen Olinpiar Jokoetan. Puntuazioko proban izan zen eta azkeneko esprintean lortu zituen beharrezko puntuak hirugarren postua eskuratzeko.

Abuztuak 15etik 19ra

■ **Carlos Peñak Itsaso Hila zeharkatu zuen igerian.** Abuztuaren 15ean ekin zion igerilari tolosarrak abentura berriari. Kasu honetan Yolanda Mintegi piraguista izan zuen laguntzaile. Jordaniako urak iparretik hegora zeharkatzea zen erronka, kontuan hartuta, uraren gaitasuna 10 aldiz handiagoa dela bertan, eta temperatura ere askoz altuagoa. 5 egunetan hainbat or-



Carlos Peña, Yolanda Mintegi piragustaren laguntzarekin, Jordaniako uretan izan da uda honetan. HITZA

duz igeri egin ostean Carlos Peñak erronka gaintzea lortu zuen. Abentura zaila izan zela aipatu zuen, izan ere, zauriak agertu zitzaizkion azalean hirugarren egunerako, eta horiek areagotu egin ziren, eta horrela amaitu beharra izan zuen. Dena dela, «oso gustura» dagoela esan zuen, «min handiegirik gabe abentura hau amaitzeagatik, eta igierian gurutzatu duen lehen pertsona izan naizelako».

Abuztuak 22 eta 23

■ **Saharar haurrei agur.** Inoiz baino goiztiarago iritsi ziren aurten eskualdera haur sahararrak uda bertan igarotzera. Ekainaren 23an eta 24an heldu ziren 14 neska-mutil eta abuztuaren 22an eta 23an jarri ziren Aljeriako Tindouf hiri ondoko errefuxiatuen kanpalekuetarako bidean. Bi hilabete igaro dituzte, beraz, eskualdean, tartean hainbat ekintza egin dituztelarik. Donostian EAE mailako festa egin zuten, eta Adunan, berriz, Gipuzkoa mailakoa. Eskualde mailako festa abuztuaren 14an egin zuten Tolosan, urtero bezala. Saharar haurrez gain, han izan ziren gurasoak eta baita Polisarioko eta Tolosako eta Villabonako udaletxeetako ordezkariak ere. Jokoak izan ziren gaztetxoentzat, eta afaria eta ondoren saharar musika talde baten kontzertua.

Abuztuak 26

■ **Edurne Pasaban Manaslura.** Edurne Pasaban tolosarrak Himalayako Manaslu mendia izango du datorren erronka. Orain gutxi argi-



Saharar umeek ibarrako danborradakoan eskutik txapelak jaso zituzten. HITZA

tu duenez hamaikagarren zortzimilakoa izango da honakoa, baina ez da munduko hamalau tontor altuenak zapaldu nahi dituen emakume bakarra, izan ere Austriako eta Italiako beste bi lagunek ere erronka bera dute. Pasabanen taldea astelehen honetan joan zen Katmandura eta irailaren 10ean, zortzi eguneko ibilbidea eta gero, iritsiko dira 4.900 metrotara dagoen oinarritzko kanpamentura. Mendizalea urriko lehen egunetan saiatuko da tontorra bere egiten. ■ **Gipuzkoa ur artean.** 1983. urteko abuztua latza izan zen benetan Euskal Herrian. Erreka zein ibaiek neurrigabe egin zuten gora eta Tolosa bezalako herrietako kaleak urez bete ziren. Pasan den hilaren 26an bete zen uholde haien 25. urteurrena. Oria ibaia goizean bertan gaineztatu zen hainbat puntutan eta ondorioz, oso denbora epe laburrean, herriko kaleak urez be-

teta ageri ziren. Ia ezinezkoa izan zen kalera atertzea egun osoan zehar eta Belate, Berazubi edo Plaza Berria bezalako herriko hainbat zonalde bakartuta geratu ziren. Hurrengo egunean lokatze eta urak eramandako auto, eserleku eta bestelako objektuz betetako kaleak ziren nagusi Tolosan.

Abuztuak 27

■ **Medikuari omenaldia.** Bidaniak agur esan behar izan dio herrian hogeituz izan duen medikuari. Izan ere, Migel Belloso herria utzi eta Ibarren egingo du lan orain. Horiek horrela, herriko San Bartolome jaien barruan Arkaitz Zelaia bertsolariak pare bat bertso eskaini zitkien eta pergamino bat opartu zioten. Bestalde, herriko enparantzan, aurreruko bat dantzatu eta herri guztiaren izanean beste opari bat eman zioten Belloso medikuari.

Pirinioetara irteera antolatu du Aizkardik

Villabona » Bachimala hirumilako mendia igoko dute, besteak beste; irteera hilaren 13an eta 14ean izango da.

ERREDAKZIOA

Urtero egiten duen bezala, Villabonako Aizkardi mendi elkarteak asteburuko irteera antolatu du Pirinioetara. Hilaren 13an eta 14ean izango da eta, besteak beste, Bachimala hirumilako mendia igoko dute.


Hilaren 13an, Villabonako Olaederra kiroldegitik 06:00etan abia-

tu ondoren, Louron bailarara iritsiok dira eta handik abiatuko dute mendi irteera. Añes Cruces (2.796 metro) igoko dute eta ondoren Viadosaterpetxera jaitsiko dira eta bertan igaroko dute gaua. Hurrengo egunean Bachimala (3.174 metro) mendia igoko dute eta Por de la Pez-etik (2.451 metro) jaitsiko dira.

Irteera honetarako izena emateko azken eguna etzi da. Horretarako 649 71 71 82 zenbakira deitu behar da 20:00etatik 22:00etara. Prezioa 55 euro da bazkideentzat eta 60 euro bazkide ez direnentzat. 21 urte azpikoek %20ko deskontua izango dute.



Bachimala mendiko gailurraren irudia. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

DONOSTIAKO komunikazio enpresa batek KUDEATZAILA behar du:

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...), eragileekin izan beharreko harremanen kargua hartuko duen pertsona baten bila gabilta.

Eskatzen da:

- Kudeaketa-administrazio arloa ezagutzea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualde ondo ezagutzea.
- Euskara maila ona izatea.
- Izaera dinamikoa, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, curriculum bidali, argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo beste helbide honetara, irailaren 10a baino lehen; JARDUNA S.M. - Giza Baliabideak saila
Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 - Andoain

berria beka 2008

Norentzat:

- Unibertitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutentzat

Kazetaritza arloa: **8 beka**, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**

Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietzan

Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2008-09-08

Eskaera egiteko orria eta beka deiak www.berria.info helbidean dago eskuragai



E **Elkarrizketa**

Ibarra » Olinpiar Jokoetan jada bi domina lortu ditu Xabi Fernandez marinel ibartarrak: Atenasen 2004an urrea eta aurten Pekinen zilarra.

ASIER IMAZ

Leire Olaberria ikaztegi-tarrak brontzea lortu zuen txirri-nduarekin Pekingo Olinpiar Jokoetan. Xabi Fernandezek (Ibarra, 1976) eta Iker Martinezek, aldiz, urrekoloroko zilarra belan.

Zilarra lepotik kentzeko astirik gabe gaur Herrialde Katalanetara zoaz?

Orain barku txikia utzi eta 20-21 metrokoan sartuko gara munduari itzulia emateko asmoz Iker eta biok. *Volvo Ocean Race* izena duen estropadan lehiatuko gara bigarren aldiz, 10 lagunez osatutako talde batean. Urriaren 11n abiatuko gara Alacantetik (Herrialde Katalanak). Bederatzi hilabeteko estropada izango da, 2009ko ekainean amaituko dugu, beraz. Denbora horretan etxetik urrun ibiliko gara, nahiz eta familikoak lurrean atsedendali egunak ditugunean gerturatuko zaizkigun. Hala ere, ez da ematen duen bezain plan ona.

Amaitu berri diren Olinpiar Jokoei dagokienaz, bigarren domina ekarri duzue.

Dagoeneko bi domina edukitzea oso ondo dago. Horrek asko laguntzen du, eta ez diru aldetik bakarrik. Irabazteko aukera genuela erakutsi dugu eta bigarren dominak askatasun handiagoa emango digu. Helburuetara iristeko gai gara erakutsi dugu eta etorkizuneko programak eta planifikazioak egiteko orduan askatasun handiagoa izango dugu; jendeak gurekin konfidantza gehiago izango baitu orain.

Pekinen ez zineten oso ongi hasi.

Bi proba on egiten bagenituen beste txarra egiten genuen. Ez ginen gaizki hasi baina ezta ongi ere: seigarren, zazpigarren edo bosgarren postuan ginen beti. Zuk gauzak ongi egin arren lau edo bosten hutsigitearen zain egotea esan nahi du horrek. Bestalde haize handirik ez zegoen eta etorri behar zela esaten zuten arren, ez zen iristen.

Zuen dohainak ezin erakutsi bezaraz.

Haizerik gabe ibiltzea ez da gure berezitasuna. 12 proba egin genituen haize gutxirekin eta hala eta guztiz ere ez ginen hain gaizki ibili. Erlojuaren aurka ongi moldatzen den txirri-ndulari bat Alpeetara minutuko atzerapenez iristea bezala izan zen. Hala eta guztiz ere, gero erantzun egin behar du erlojupeko proban. Azkenik, azken txandan iritsi zen haizea.

Eta berarekin mugimenduak.

ASIER IMAZ

«Jokoetan lortzen dugun bigarren domina da eta hori da garrantzitsuen»

Hegoaldetik etorri zen honek olatu handiak ekarri zituen. Postuak igotzeko behar genuen baina asko irabazteko duzun bezala asko duzu galtzeko. 16:00etan hasten zen azken estropada eta haizea gorantz zihoan. Urduritasuna ere bagenuen, dena bertan behera gertatzeko arriskua hor baitzegoen itsaso txarrarengatik. 11:00etan entrenatzera ateratzeko asmoa genuen baina azkenean, barkuarekin arazorik ez edukitzea, probak egitera ez joatea erabaki genuen. Daniarra, lehen postuan zihoana, urduri zegoen eta orduerdi lehenago, 15:30ean, itsasora ateratzen.

Probatzera ateratzeko arriskua hartu zuten eta barkuko masta hautsi zuten.

Zenbagarren postuan aurkitzen zineten zuek azken txanpa hasi aurretik?

Sailkapenean laugarren postuan geunden: brontzea puntu batera, zilarra lau puntura eta urrea 15 puntura genituen. Lehenengo postuan ziren daniarrak masta hautsi zutela ikusi genuenean urrea lortzea posible zela ikusi genuen; horretarako azken estropada lehen hiru postuetan amaitu behar genuen. Azkenean irabazi egin genuen.

Horrelako kasuetan, masta hautsitakoan, zer dio araudiak?

Araudia argia da. Estropada hasieran zure barkua epaileei erakutsi behar diezu, pisatu eta dena ikus dezaten. Ondoren, sinatu egiten duzu eta uretara. Tresnaren bat hausten baldin bada aldatzeko aukera izaten duzu epaileari esan ondoren. Masta hautsi baldin baduzu lurrera joan, aldatu eta berriro ateratzen zara. Daniarren kasuan denborarik ez zuten masta aldatzeko eta Kroaziarren ontzia hartu zuten. Azken hauek finaltik kanpo zeudenez ez ziren uretara atera. Daniarrek ez zuten ezer sinatu ez

ezer egin. Estropada jada hasita zegoen eta guk ez genekien daniarrek egin zutena. Azken txanda irabazi ostean urrea irabazi genuela uste genuen. Gero entrenatzaileak esan zigun daniarrak beste barku batean lehian ari zirela.

Erreklamazioak orduan iritsi ziren?

Epaileek ere erreklamazioa jarri zuten ez guk ere jarri egin genuen. Gero epaiketa moduko bat egiten da lehorrean eta uretako epaileak, erreklamazioa jarri zutenak, atzera egiten hasi ziren. Ongi ez zegoela esaten zuten baina aldatetarekin zer irabazi handirik ez zutela eta abar aipatzen zuten. Araudia

«Daniarrak masta hautsi ondoren Kroaziako barkuarekin lehiatu ziren azken estropadan»**«Leire Olaberria brontzea lortu zuela ikusi nuenean poz izugarria sentitu nuen»**

irakurri eta oso erraza da erabakia hartzea baina erreklamazioek ez zuten aurrera egin.

Olinpiar Jokoetan beharrezko proba batean izango balitz...

Deskalkifikatu egingo zizutzen. Ziur.

Gertakari honek dizdira kendu al dio zilarrari?

Pixka bat bai. Baina pasa da eta aurrera begiratu behar da. Olinpiar Jokoetan lortu dugun bigarren domina da eta hori da garrantzitsuen. Jokoa zerbait ekarri nahi genuen, gure helburua hori zen, eta lortu dugu.

Bi koloreko bi domina kolore bakarreko bi baino politagoa da.

[Farreak] Hurrengoan hirugarren koloreko baldin bada gu gustura.

Londres 2012ra joateko asmoa duzue, beraz?

Ez baldin bada inongo arazorik suertatzen nik uste dut baietz. Oraindik sasio-angudela uste dut baina denbora asko geratzen da. Munduko bira hau daukagu orain eta gero hasiko gara berriz gure mailan prestatuntzan.

Leire Olaberriak brontzea lortu du Pekinen.

Telebistaz ikusi genuen eta poz izugarria sentitu nuen. Elkarrekin hemen egin zeniguten elkarrizketan dominarik ez zuten aipatzen baina argi zegoen barnean zeramala. Orain dela lau urte hasi zen bizikletarekin eta meritu handia dauka.

Lagunek koadrilen bazkarian eta Udalak plazan omendu zaituzte.

Omenaldi xumeak eta politik izan dira guretzat. Lotsatu egiten naiz horrelako kontuekin eta orain dela lau urteko baino xumeagoak izan dira omenaldiak eta gustura. Jendea pozik ikusten duzu eta ni ere pozik. Horrelako gauzak politik izaten dira.

Ikertzen ari dira etxe batean izandako sutea nahita eragin den

Lizartza » Herenegun goizaldean sutea piztu zen Elbarrena kaleko etxe batean; ez zen zauritu larririk izan.

ERREDAKZIOA

Lizartzako Elbarrena kaleko etxe batean, Elizaren ondoko etxean, sute bat piztu zen herenegun 06:00etan. Ez zen zauritu larririk izan. Oraindik ez dago zehaztuta istripu bat izan zen edo sutea norbaitek eraginda piztu zen. Herri-zaingo Sailak azaldu duenaren

arabera, suhiltzaileek ikertuko dute eta zehaztuko dute nola piztu zen sua.

Etxearen lehenengo pisuan piztu zen sua eta beste solairuetako zenbait bizilagun anbulantzia eraman behar izan zituzten kea nastu zutelako. Ez zen zauritu larririk izan eta egunean bertan eman zitzaizen alta.

Suteak kalteak eragin ditu etxean, baina egun berean suhiltzaileek baimena eman zien bizilagunei beraien etzebizitzetara joateko. Sutea piztu eta hortik bi ordu ingurura suhiltzaileek bukatu zuten beraien lana.

Herritar bat zauritu eta hainbat mehatxatu ondoren atxilotuta

Alegia » 29 urteko gazteak labankada bat eman zion herritar bati; ertzainek atxilotu eta Agintzaritza Judizialaren esku utzi zuten.

ERREDAKZIOA

Tolosako Ertzaintzako agenteek 29 urteko gizonetako bat atxilotu zuten herenegun Alegian, hainbat herritarri bi labana erabiliz heriotza mehatxuak egitea eta horietako bati ebaki bat egitea leporatuta. Herenegun eguerdiko ordu bata aldera gertatu zen ezbeharra.

Ertzaintzak azaldu duenez, Alegia erdialdeko taberna batera polizia bertaratzeara eskatu zuten. Handik esan zuten, gizonetako bat arma zuri batez udalerriko hainbat lagun mehatxatzen ari zen, eta horietako batzuek establezimendu horretan babestu behar izan zuten beren burua, eraso saihesteko. Dirudienek, gazteak labankada bat eman zion besoan egoera baretzen saiatu zen pertsona bati, eta ertzain bat ere zauritu zuen besoan. Agenteek atxilotu egin zuten, eta jarraian, polizia egoitza batera eraman, eta ondoren, Agintzaritza Judizialaren esku utzi zuten.

Arrate eta Portland taldeen arteko partida gaur Usabal kiroldegian

Tolosa » IV. Miguel Angel Lorz 'Txipi' Memoriala izango da jokoan eta norgehiagoka 19:00etan hasiko da, Portlanden sei bajarekin.

ERREDAKZIOA

Lehen mailako eskubalo partida ikusteko aukera izango da gaur Usabalen. IV. Miguel Angel Lorz 'Txipi' Memoriala, hain zuzen. Bertan neurtuko dituzte indarrak Arrate eta Portland taldeek. 19:00etan hasiko da eta talde iruindarra sei bajarekin ariko da.

Laburrak

Udaberriren haurrentzako ikastaroetako zerrendak

TOLOSA » Udaberriren haurrentzako ikastaroetako zerrendak gaurtik lokal berriko atean daude ikusgai. Bestalde, entsueguak datorren ostiralean hilaren 12an hasiko dira. Horretaz gain, urritik aurrera helduentzako fandango eta arin-arin ikastaroa martxan jartzeko asmoa dutela azaldu dute Udaberriatik.

HABEren 2. eta 3. mailarako ikastaroak

TOLOSA » Aitzol Udal Euskaltegiak HABEren 2. eta 3. mailako azterketen bigarren deialdia prestatzeko ikastaroak antolatu ditu iraila eta urrirako, arratsalde. Bigarren mailako ikastaroa 20 ordukoa izango da, eta hirugarren mailakoa 25 ordukoa. Izena emateko azken eguna etzi izango da, eta goizez nahiz arratsaldez egin ahalgo da. Informazio gehiagorako 943 65 10 06 zenbakira deitu ahalgo da.

Futbolearen jokatzeko deialdia gaur eta etzi

TOLOSA » Tolosa CFk deialdia luzatu du futbolearen jokatu nahi duten neskenzat. 14 urtetik gorako neskek har dezakete parte. Animatzen direnek gaur eta etzi aurkeztu beharko dute Usabal kiroldegian entrenamendurako kirol jantziekin, 19:00etan.

Izaskun auzoko jaietako danborradan parte-hartzea

TOLOSA » Izaskun auzoko jaietan, hilaren 5ean, auzoko danborrada izango da aurten. Izen-ematea, auzoko hiru elkarteetan (Arsenal, Emendek eta Izaskun) eta Denak tabernan egin ahalgo da 15 euroren truke (afaria eta jaietako painelua barne).

Turismo bulegoak ordutegi berria izango du

TOLOSA » Tolosaldea Tour Turismo Bulegoak ordutegi berria du astelehen honetatik aurrera. Astelehenetik larunbatera 10:00etatik 13:30era eta 15:30etik 19:00etara egongo da zabalik, eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara. Bisita gidatuei dagokionez, berriz, irailaren 8tik aurrera izango da hauetarako aukera. Astelehenetik ostiralera, hitzordua alde aurretik hartuta, Gorrotxategi Museoa, Tolosako Alde Zaharra eta Larraulgo Museo Etnografikoa bisitatu ahalgo dira. Larunbatetan, berriz, 10:00etan eta 16:00 bisita gidatua egongo da Gorrotxategi Museoa, eta 11:00etan Babarrunaren Ibilbidea egiteko aukera egongo da. Halaber, 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara Gorrotxategi Museoa irekita izango da. Igandetan, bestalde, 10:00etan Gorrotxategi Museoa bisitatu ahalgo da, eta 11:00etan Tolosako Alde Zaharra; 12:00etatik 14:00etara Gorrotxategi Museoa irekita egongo da.

Arantzazura txangoa antolatu du Harizpek

TOLOSA » Harizpe jubilatuen elkar-teak txangoa antolatu du hilaren 9rako Arantzazura. Irteera 08:30ean izango da San Frantziskotik. Arantzazu eta Loiolako santutegia bisitatu eta Itziarrera joango dira bazkaltzera, Itziar hostalean, 14:30ak inguruan. Bazkaldu eta gero Zarautzera joango dira. Bazkideek 28 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek, berriz, 31 euro. Harizpe elkarteak arduradunek azaldu dutenez oraindik ere lekua geratzen da irteera honetara joateko, beraz, animatzen direnek ahalik eta azkarren joan beharko dute elkartera.

TESTULIBURUAK
adituen eskuetan
ez dago
ikasgai zailik

elkar

Orain irabiatu ereduak
Tolosan, 2008ko irailaren 3a
www.elkar.com

ARRASATE • ARIZONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • HERNANI • IRUJ • IZASKUN • TOLOSA

FESTA AUKERA ESKURA

Arantzazuko Amaren jaiak » Datozen egunetan Alkiza, Zizurkil, Bedaio, Elduain, Lizartza eta Izaskun auzoan jaiak izango dira.

» EGITARAUAK

ALKIZAKO JAIAK

Irailak 4, osteguna

- **16:00.** Haur jolasak.
- **Ondoren.** Potxin eta Patxin pailazoak.
- **21:00.** Herri afaria Ostatu jatetxean.
- **23:00.** Trikitixa Ostolaza eta Narbaizarekin.

Irailak 5, ostirala

- **Mozorroen eguna.** Kalejira eta poteoa Batukadarekin.
- **21:00.** Barrikotea.
- **23:00.** Bertsolari jaialdia: Lizaso, Egaña, Lujanbio, Irazu, Mendiluze eta Gaztelumendi. Gai jartzaila: Unai Elizasu.
- **Ondoren.** Bidebatez (Etxabe) taldearekin erromeria.

Irailak 6, larunbata

- **10:30.** Herriko umeentzat txirridulari lasterketa eta toka txapelketa.
- **18:00.** Herri kirolak herriko gazteen artean Ion Zabala eta Izaskun Mendizabal zirenen oroimenez.
- **Ondoren.** Sagardo dastaketa.
- **23:00.** Herri kirol saioa aizkolaria eta harri-jasotzaileekin.
- **Ondoren.** kontzertuak: Lain, Nunbait, Hiverland, Gabon Dan-txari.

Irailak 7, igandea

- **10:00.** Meza nagusia.
- **10:15.** Pilota partidak: Gazteen arteko XVIII. Txapelketako finalak.
- **16:00.** Pitxoi tiraketa Erniope elkarteak antolatutik, bazkide eta herritarrentzat.
- **17:00.** Asto lasterketa herrikoia mozorrotuta.
- **Ondoren.** Alurr dantza taldea.
- **Bukatze.** Agurtzane eta Ion Elustondorekin erromeria.

Irailak 8, astelehena

- **12:00.** Meza.
- **Ondoren.** Gaztetxoentzako toka.
- **14:00.** Jubilatuen bazkaria Ostatu jatetxean.
- **Jarraian.** Beteranoen arteko XVII. Pilota Txapelketaren finala.
- **Gero.** Toka Txapelketa herrikoia.
- **Bukatze.** Trikitixa.

ELDUAINGO JAIAK

Irailak 5, ostirala

- **17:00.** Suziriak. Ondoren puzgariak eta tailerrak txikientzat.
- **18:30.** Patinai erakustaldia herriko haurren eskutik.
- **21:30.** Herri afaria Urdelar biltokian.
- **00:00.** Kontzertuak: Hesian eta Jo ta hanka (J&K).
- **Oharra.** Autobus zerbitzua egongo da: 23:30ean (Tolosa-El-

duain) ohiko tokietan (San Frantzisko eta Tolosa-Ibarrako sarre-ran. 00:00etan (Leitza-Elduain) Gaztetxe aurrean. 04:00etan (Elduain-Leitza) Kontzeju aurrean, eta 04:30ean (Elduain-Tolosa) Kontzeju aurrean.

Irailak 6, larunbata

- **17:00.** Pailazoak herriko plazan: Gari, Montxo eta Joxelontxo.
- **Ondoren.** Buruhandiak.
- **18:30.** Patata tortilla dastaketa plazan, sagardoz eta ardoz lagundurik.
- **Jarraian.** Kale antzerkia, Trapu Zaharra taldearen eskutik.
- **00:00.** Abiba diskojaia.
- **Oharra.** Autobus zerbitzua: 23:30ean (Tolosa-Elduain) ohiko tokietan (San Frantzisko eta Tolosa-Ibarrako sarre-ran). 04:30ean (Elduain-Tolosa) Kontzeju aurrean.

Irailak 7, igandea

- **10:30.** Meza nagusia, Santa Katalina elizan
- **Ondoren.** Hamaiketako, sardina, txakolina eta ardoarekin.
- **12:00.** I. Argazki Lehiaketaren sari banaketa. Gaia: Oporrak.
- **12:30.** Pilota partidak: Alain Ugartemendia eta Eñaut Olazabal; Alain Barandarain eta Aimar Barandarain; Xabier Mariezkurrena-Josu Olazabal eta Ibon Karrera-Joxe Angel Lazkano bikoteak.

Irailak 8, astelehena

- **10:00.** Meza nagusia, Santa Katalina elizan.
- **Ondoren.** Aita Donostia abesbatza elizan.
- **12:00.** Hamaiketako Kontzeju Tabernan.
- **18:00.** Aizkolaria: Mugerza, Esnaola, Mujika eta Otaegi.
- **19:00.** Trikitixa plazan, Arkaizten eta Miriamen eskutik.
- **19:30.** Gorriti eta bere animaliak plazan trikitilariak alaiturik.

ZIZURKILGO JAIAK

Irailak 5, ostirala

- **17:00.** 1, 2, 3 Iñaxito pailazoak.
- **Ondoren.** Buruhandiak.
- **19:00.** Kantu Kale: herritarrek herria euskal kantuz alaituko dute.
- **20:00.** Txupinazoa Atxulondo dira euren gauzak bertan Zizurkilgo festetako kantua aurkeztuko da.
- **Ondoren.** Kantu Kalerekin jarraituko da.
- **21:00.** Herri afaria Pasmus plazan.
- **00:00.** Txortainsekin kalejira.
- **03:00.** Gau jolasak eta karaokea.

Irailak 6, larunbata

- **10:00.** Bigarren eskuko azoka plazan.
- **Oharra.** Mahaia nahi dituen guztientzat eskuragarri egongo dira euren gauzak ekarri eta salgai jartzeko.
- **11:00.** Sardinak eta sagardo dastaketa Urkamendi Elkartearen eskutik, plazan.
- **14:00.** Gazte bazkaria, jokoak eta musika Aurrera plazan.
- **17:00.** Halterofiliako XVI. Elbarrrena Trofeoa.
- **19:30.** Zizurkilgo gazteek antolatuta manifestazioa, *AHTrekin etorkizun ez. Etorkizuna independentzia* lelopean.
- **23:00.** Kontzertuak: Skatu, Arkada, Zulu 9:30 (Reggae-afrolatin. Kataluña).
- **Oharra.** Kontzertuen tarteetan preso eta errefuxiatuei omenaldia egingo zaie.

Irailak 7, igandea

- **10:30-13:30.** Guraso eta haurrentzat Jokolandia.
- **11:00.** Ardi txakurren erakustaldia Danena futbol zelaietan.
- **16:30.** Ume jolasak eta dantza.
- **Ondoren.** Merienda eta buruhandiak.
- **20:30.** Fermin Valencianen kontzertua.

Irailak 9, asteartea

- **11:30.** Meza nagusia
- **14:00.** Jubilatuen bazkaria, eta toka eta igela jokoak.
- **19:00.** Aizkolaria: Joseba Otegi eta Jon Rekondo. Harri-jasotzaileak: Telleria anaiak.
- **22:00.** *Aupa Etxebeste* filma.

Irailak 12, ostirala

- **18:00.** *AHT rueda-poteoa* (bizikletaz, patinekin...).
- **19:00.** Krosa, neska eta mutilak osatutako bikoteentzat. Izena emateko lasterketa baino ordu bete lehenago azaldu beharko da.
- **Ondoren.** Buruhandiak.
- **20:00.** Pintxo lehiaketa eta afari-merienda plazan. Koadrila bakoitzak su bat izango du. Pintxoak prestatzeko lehengaiak koadrila bakoitzak eraman beharko ditu.
- **23:00.** Oinkari dantza taldearen *Aspaldikotik* emanaldia.
- **Ondoren.** Aritz Sound System txosnetan.

Irailak 13, larunbata

- **11:00.** Gorritiren animaliak.
- **Ondoren.** Buruhandiak.
- **14:30.** Herri bazkaria.
- **17:00.** Blusen arteko pentatloia. Koadrilek bost jokotan parte hartuko dute: asto karrera...
- **Gaupasa.** Mozorro gaua. Gaia libreza izango da.
- **23:00.** Lain taldea.
- **00:30.** Lakete erromeria taldea goizaldera arte.
- **06:00.** Gosaria Pasmus plazan.
- **07:00.** Diana dultzaiekin.
- **Oharra.** Plazan afaltzeko gunea izango da gauero. Nahi duenak afaria eraman eta bertan afaldu ahaliko du.
- **Bigarren eskuko azokak eta asto karrerak irauten duen bitartean Geurea da ikurriña!** sinadura bilketa egingo da.

Irailak 14, igandea

- **10:00.** Zizurkilgo II. Slalom-a.

BEDAIOKO JAIAK

Irailak 5, ostirala

- **20:00.** Txupinazoa.
- **Ondoren.** Sagardo probaketa eta segidan, zahagi ardoa.
- **Gaeuan.** Elustondo anaia-arrebak goizaldera arte, frontoian.

Irailak 6, larunbata

- **16:00.** Ume jolasak.
- **21:00.** Herri afaria.
- **Tartean.** Begirik zorrotzena, edo zehatzena sarituko dute afaltzen ari direnen artean... Sarituak izango dira.
- **Ondoren.** Maider eta Ane

trikitilariak eguna argitu arte ariko dira.

Irailak 7, igandea

- **11:00.** Meza nagusia.
- **Ondoren.** Hamaiketako Artubi elkarteak.
- **13:00.** Bedaio XIX. Txirridulari goera: Ugartetik Bedaioara.
- **17:00.** Harri-jasotzaileak eta aizkolaria.
- **Ondoren.** Bedaioko Ingurutxoak.
- **Oharra.** Egun guztian zehar trikitilariak ariko dira eguna alaitzen.
- **Bukatze.** Mondeju-jatea elkarteak.

Irailak 8, astelehena

- **11:00.** Meza nagusia.
- **Ondoren.** Hamaiketako bertsolariekin eta trikitilariekin.
- **Egurdian.** Bazkaria elkarteak.
- **Orduan ere izena eman daiteke.**
- **Jarraian.** Toka Txapelketa.
- **Azkenik.** Afaria elkarteak.

IZASKUN AUZOKO JAIAK

Irailak 5, ostirala

- **18:00.** Txupinazoa eta txokolatada.
- **19:00.** Buruhandiak.
- **20:00.** Triki-poteoa: Txepe eta Unairekin.
- **23:00.** Danborrada Bonberenea txarangarekin.
- **00:00.** Kontzertuak: Humus eta erromeria Laketekin.

Irailak 6, larunbata

- **09:30.** Haurrentzako gosaria Sputnik plazan.
- **10:00.** Haur-jolasak eta ondoren Buruhandiak.
- **11:00.** Toka txapelketa (gizonezkoak).
- **12:00.** Udaberri dantza taldea Izaskun plazan.
- **14:00.** Auzo bazkaria Izaskun plazan Gaztelumendi anaiak bertsolariekin. Txartelak: Dionixi eta Denak tabernan
- **16:30.** Izaskun Auzoko Mus Txapelketa azkarra 2009.
- **17:00.** Toka txapelketa (emakumezkoak).

Irailak 7, igandea

- **09:30.** Diana Tolosako Udala Txistulari Bandarekin, festekin bukatzeko.
- **19:00.** Sagardo dastaketa pintxoekin izango da Izaskun plazan.
- **19:30.** Mulambo perkusio taldea.
- **21:00.** Zahagi ardoa Izaskun plazan.
- **23:00.** Kontzertuak: Jone, Inde Kitxen eta Atila y los Unos.



Izaskun auzoko jaiak lehengo urtean ere arrakasta izan zuten. HITZA



Udako giroa gozotu duten festak, herrietakoak

FESTAK • Udan zehar makina bat herritan izan dira jaiak Tolosaldean eta Leitzaldean. Ezin denak irudikatu, baina ziur denetan giro bikaina izan dela, herritarren bizigarri izanik. Dantza, kirola eta jan-edanak izan dira ardatz guztietan, baina herri bakoitzak bere izaera bereziarekin bizi eta jorratzen

ditu. Lehen argazkian, Altzo azaltzen da: bertan, besteen artean, harri-zulatzaileren txapelketa izan zen, eta profesionalen ondoren, herritarren artean apustua egin zuten. Leitzan urtero ikusgarria den *Ezpatadantza* ere dantzatu zuten herri-tarrek, ikusle askoren begiradapean. Ibarren sanbartolome-

ak eta Bartoloak (aldarrikapen jaiak) ospatu zituzten. Oraindik ere jai asko gelditzen dira aurretik, eta dagoeneko bukatu diren jaien ildoari helduko diote. Bitartean, datorren urtera arte itxaron beharko dute herri goiztiarren... HITZA / N. GARRAZIA / BARTOLABATZORDEA / HITZA

H Hilberriak eta urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldea@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

VI. urteurrena
**JULEN SAIZAR
LARRANAGA**

Berriro elkar ikusiko dugun
esperantzan



Oharra: Elizkizuna Gaur, arratsaldeko
19:00etan Orioko San Nikolas Elizan

ORIO
2008ko irailaren 3a

**XABIER PORTUGAL
ARTEAGA**



Izan zirelako izan zara
izan zarelako izango dira.

Maite zaitugu



PASAIAN
2008ko
irailaren 3an

Zure familia

**JOSEBA XABIER
PORTUGAL ARTEAGA**

(Pasaiaiko Udaleko Alkate Ohia)



Berbizkunde berria
maiteak yario;
itzik ezin ta irria
ain ezti dagio!

Pasaiaiko Udala



PASAIAN
2008ko
irailaren 3an

XABIER PORTUGAL
(Pasaia-Lezo Lizeoko lankidea)



Zure irriak hazitako lanek
eta zure lanak hezitako irriek
bizi gaituzte.
Ez adiorik!

**Pasaia-Lezo Lizeoko gurasook,
langileok eta ikasleok**

2008ko
irailaren 3an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leizalzeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Urte askoan!

Muxutxoak zure bi sorgintxoen partetik. Animo eta eutsi goiari!



Zorionak Haimar! Belaunaldi berria ere gurekin. Aurrera bolie!



Urte askoan! Besarkada bero bat zure Lizartzako familiaren partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Urte askoan!

Yulen Lopez Etxenagusia.
Gaur 5 urte. Aitona, osaba eta etxeokoen partetik zorionak!



Urte askoan!

Nasara.
Ez zaitze nabartu. Majari: «Sua nahi? Hmmm! Mundiala dago!»



Urte askoan Haimar! Muxu pila pila, ta besarkada haundi bat! Osasuna, maitasuna, ta askatasuna. Eutsi goiai!

agurrak
agurrak